

Gure enpresak behar dituen elementu garrantzitsuenak 3 taldetan sailkatuko genituzke. Lehenik, baliabide fisikoekin hasita, hainbat material beharko genituzke: telefono bat, bezeroekin eta bazkideekin kontaktatzeko, ordenagailu bat proiektuaren organizazioa aurrera eramateko, txartelak eta lokala. Baliabide intelektuala enpresaren teknologiaren atzean dagoen sistema inteligentea izango zen. Azkenekoz, finantza-baliabideetan diru-sarrerak sartuko ziren. Horrez gain, esperientziak, abileziak eta kontaktuak ere gure enpresaren zati garrantzitsuak dira.